

EUSKARAZ MINTZATZEKO  
LAGUNIK BEHAR AL DUZU?

EUSKARAZ MINTZATU  
NAHI DUENARI  
LAGUNTZEKO PREST?



mintzakide

Barañaingo Udalak *Mintzakide* proiektua garatu du, *Nafarroako Topagunea-Euskara Elkarten Federazioa* Elkartearekin sinaturiko laguntzarako kontratuaren bidez.

*Mintzakide* proiektuak mintzamina lantzeko aukera eskaintzen dio euskararen ikaskuntza-prozesuan dagoen orori, gaitasun linguistikoa duenarekin solasteari esker. Gizartearen eguneroko harremanen eremuan euskaldun zaharrekin edo euskalduntze prozesua osatua dutenekin hitz egiteak ahalbidetzen du hizkuntzaren ikaskuntza dinamikoagoa eta aberatsagoa bihurtzea, eta, aldi berean, erabilera-esparruak sendotzea.

Programan parte hartu nahi baduzu -gaitasun linguistikodun mintzakide ala ikaskuntza-prozesuan dagoen mintzakide gisa- izena eman dezakezu hemen: Barañaingo Sahats Euskaltegia (Haraneko etorbidea 2, behea).



Garapenari dagokionez, mintza-taldeak eratzen dira, astean gutxienez ordubetez elkartzen direlarik. Horrez gain, hainbat jarduera osagarri eskaintzen da (ibilaldiak, e.a.), eta informazio-buletin bat ematen da argitara.